



# AGURTZEKO ZEREMONIAK

**HILETA LAIKOAK, ZIBILAK  
EDO PERTSONALIZATUAK  
ERE DEITUAK.**

**AGURTZEKO ETA  
GOGORATZEKO  
BESTE MODU BAT**



## **AGURTZEKO ZEREMONIAK, HILETA LAIKOAK, ZIBILAK EDO PERTSONALIZATUAK ERE DEITUAK.**

### **(AGURTZEKO ETA GOGORATZEKO BESTE MODU BAT)**

### **NOLA ANTOLATU**

\*Agurtzeko zeremoniak hildakoaren bizitzan zentratutako ospakizunak dira eta hildakoaren beraren edo haren hurbilekoen (senide, lagun...) borondatea betetzea dute helburu.


Norberaren bizitzari edo maite ditugunen bizitzari agurra modu berezi, pertsonalizatu, koherente eta errespetuzkoan egiteko ekimena da.

Oinarriak:

- Xehetasunak: xehetasun guztiak zaindu behar dira.
- Pertsonalizazioa: agurtzen den pertsonaren edo haren senideen, lagunen eta abarren nahiaren arabera diseinatuko da. Doinua, ideia, espazioa edo lekua, uneak, jarduerak, komunikazioa eta abar, pertsona eta testuinguru bakoitzari egokituko zaizkio, hots, "neurritza" egingen da.
- Errespetua: pertsonarengan jartzen da arreta, eta errespetuz eta zorrotz zaindu behar da agurra.

### **ZENBAT IRAUTEN DU AGURTZEKO ZEREMONIA BATEK?**

Hileta laikoaren batez besteko iraupena 15 edo 20 minutukoa da. Iraupen hori aldatu egin daiteke aukeratu den musikaren, esku hartzen duten pertsonen eta bertan egindako irakurketen arabera.



## **NORK GIDATZEN DU AGURTZEKO ZEREMONIA BAT?**

Horrelako zeremonietan ez dago ofizioa erlijio-erritu jakin baten arabera gidatzen duen apaiz bat, baizik eta zeremonia edo ospakizuna zuzentzeaz arduratuko den pertsona bat: senitartekoa, laguna edo beste norbait.

Gidatzeko ardura hori:

- Senitartekoek eta lagunek hartu dezakete.
- Hileta zibilen lantaldeari laguntza eskatu diezaioke.
- Profesional bati guztiaz arduratzeko eskatu diezaioke.

Ehorztetxe batek eskain dezakeen zerbitzuaz gain, agur laikoak antolatzen espezializatutako enpresak ere badaude. [www.agurrak.com](http://www.agurrak.com), [dolu.eus](http://dolu.eus)... esate baterako.

## **ANTOLATZEA**

Hildakoaren familiak zeremoniako edo ospakizuneko gidaria aukeratuko du. Horrek, lehenik eta behin, hildakoaren lehentasunak ezagutu behar ditu, eta jarduteko moduari buruzko jarraibiderik utzi ote duen ikusi; izan ere, kasu askotan, "Azken Desioak" izeneko dokumentu bat dago, non hildakoak dena antolatuta utzi duen.

Agurtzeko zeremonia egiteko askatasun handia dagoenez, zeremonia konbentzional bat edo aukera pertsonalagoren bat aukeratu daiteke.



## TOKIA

Leitzako Herri Aretuan agurtzeko zeremoniak egin ahal izango dira, hildakoaren gorpua bertan dela edo haren errautsekin. Horretarako eskaera udalean egin beharko da eta dagokion tarifa ordaindu beharko da.

Aretoa erabiltzeko, honako hau egin beharko da:

- Eskaera egin, aurrez aurre, udaletxean. Bertan, erabili nahi diren baliabideak (megafonia, proiektorea, mahaia...) adierazi beharko dira.
- Megafonia edo proiektorea erabili nahi baldin bada, Leitzako Herri Aretoko teknikaria bertan egon beharko da.
- Tarifa ordaindu (Aretoa erabiltzagarik ordenantza fiskalak ezartzen duen moduan).

Agurra egingo den aretoa egokia izango da ekitaldia egiteko eta bertan dauden baliabideak eskura egonen dira (proiektorea, megafonia, musika ekipoa...). Hala ere, senitartekoek edota lagunek modu berezian apaindu edo egokitu nahi badute, beraiek egin beharko dute, eta haien kontura izango dira hori dela-eta sortzen diren gastuak. Ekitaldia egiteko zerbitzu osagarriak interesdunak jarriko ditu, eta beraren kargura joango dira, hargatik eragotzi gabe Leitzako Udalak zerbitzu horiek gainbegiratzea.

## ZEREMONIAREN EGITURA

Beren egituran, hileta pertsonalizatuak eta hileta erlijiosoak ez dira hain ezberdinak. Bien arteko ezberdintasuna edukian dago.

Hildakoa agurtzea garrantzitsua da, maitatua gogoratzen da beraren bertute eta pasadizoekin batera. Zeremonian zehar ez da beharrezkoa kontu pertsonalegiak edo intimoak kontatzea. Pertsonalizatua izan behar du.



Hona egitura:

## A- AURRE LANAK (Gidaria, gonbidapena eta aretoa atondu)

## B- ZEREMONIAREN GARAPENA

### A- AURRE LANAK (Gidaria hautatu, gonbidapena eta aretoa atondu)

- **GIDARIA:** zeremonia edo ospakizuna zuzentzeaz arduratuko den pertsona hautatuko dugu.
- **GONBIDAPENA:** Zeremoniara gonbidatu nahi dugun pertsonen zerrenda bat prestatuko dugu eta erabakitako formatuan (gutuna, prentsa..) zeremoniara gonbidatuko ditugu.
- **ARETOA ATONDU**

Aretoa atondu eta girotzea komeni da, hildakoaren, senitartekoen edo lagunen nahiaren arabera.

- Material biografikoa jarriko den mahaia non kokatuko den erabakiko da.
- Zeremonian parte hartuko dutenak nola kokatuko diren zehaztuko da (zutik, eserita...).

Aretoak tenperatura egokia duela egiaztatuko da.

Gonbidatuak aretora sartzen direnean edo sartzen ari diren bitartean, eta zeremonia bukatu ondoren ateratzen ari diren bitartean, musika jarri daiteke.



## B-ZEREMONIAREN GARAPENA

**1. Irekierako hitzak:** irekieran eskerrak ematen zaizkie bertaratutakoei, konpainiagatik eta jasotako babesagatik. Ez bakarrik une gogor horietan mina partekatzeagatik, baita hildakoari eta bere familiari erakutsitako maitasunagatik ere. Ongi etorria eta azalpen labur bat ematen zaie zeremonia zertan datzan azaltzeko.

**2. Bizitzari eta heriotzari buruzko gogoetak:** heriotzaren gaiari buruzko irakurketak egiten dira, prosaz nahiz poesiaren bitartez. Gogoetari lotutako une bat da.



## IDEI BAT EGITEKO POEMA BATZUK

\*Joan delako negar egin dezakezu  
edo irribarre egin dezakezu bizi izan delako.

Begiak itxi eta amets egin dezakezu itzul dadin,  
edo ireki eta utzi duen guztia ikus dezakezu;

zure bihotza hutsik egon daiteke, ezin duzulako ikusi,  
edo partekatutako maitasunez beteta egon daiteke.

Negar egin dezakezu, burua itxi, hutsunea sentitu eta bizkarra eman,  
edo ..... gustatuko litzaiokeena egin dezakezu:

**IRRIBARRE EGIN, BEGIAK IREKI, MAITATU ETA JARRAITU.**



\*Oraindik maite zaitut.

Hitz eman nizun bezala, zure oroitzapena gordetzen dut.

Eta bizitzak zu joatea nahi izan bazuen ere,  
ezin izan zintuen nire burutik kendu, ezta ezabatu ere.

Gaur nire baitan bizi zara,  
nire poztasunean laguntzen nauzu, eta nire une tristeetan,

beti egin duzun bezala,  
izan behar duen bezala, oraindik maite zaitudalako.

\*Norfipc.com web orritik hartutako poemak



Askatasuna zenuen bizitzeko oinarri  
apaltasuna eguneroko ezaugarri  
behar zituenarentzat beti lagungarri



Beti irrifarrea zenuen lagun min  
gauza denen gainetik aurrera ekin  
bizitzari helduan gogo guztiekin  
indar hau utzi duzu beti gurekin  
maite izan zaitugun familiarekin

**3. Hildakoa gogoratzea "In memoriam":** joan den pertsona gogoratzeko unea iritsi da. Une honetan, senitartekoek edo lagunek hitz batzuk esan diezazkiekete bertaratutakoei, hildakoa gogoratzeko eta haren bizitzari, lorpenei eta abarri ohore egiteko. Abestu daiteke, bertso bat bota, gutun bat irakurri, argazkiak ikusi, zerbait proiektatu, abesti bat entzun...

#### **\*IDEIA BAT EGITEKO ADIBIDE BATZUK**

Esan dugun bezala, agurtzeko zeremonia antolatzeko orduan, pertsonaren gustuak hartu behar ditugu kontuan, ahalik eta gehien pertsonalizatu ahal izateko. Ideia batzuk proposatuko dizkizuegu antolatzeko. Horrelako ekintzak xehetasunez pertsonaliza daitezke, senitartekoei eta lagunei hildakoa nolakoa zen maitasunez gogoratzeko aukera emanaz.

\*Idei horiek, funeuskadi web orritik hartuta daude.





- **Bidaia zaleak**

Azken agurra jasoko duen pertsona bidaia zale amorratua bazen, ibilitako lekuak gogoratuz idatzi edo proiektzioa bat egin daiteke. Bidai horiek, bizitzari eta heriotzari buruzko hausnarketak egiteko erabili daitezke.

- **Zinemazaleak**

Hildakoa zinemazale amorratua baldin bazen, haren film gogokoenen zatiak dituen agurrak edo horiekin zerikusia duten irakurketek senide eta lagunei samurtasunez gogoratzen lagun diezaiekete.

- **Musikaz maiteminduak**

Musikarekin maiteminduta daudenentzat, ez dago agur hoberik zuzeneko talde batek haren abesti gogokoenetako batzuk jotzea edo haren abesti batzuk aukeratzea baino.

**4. Ekitaldiaren amaiera:** amaierako hitz batzuk esaten dira eta bertaratutako guztiei eskerrak ematen zaizkie familiari ekitaldian laguntzeagatik.

Ekitaldia auresku bat dantzatzuz, abestuz... bukatu daiteke.

Beste aukera bat mokadu, hamaiketako... egitera gonbidatzea izan daiteke.

Zeremoniaren gastuak ordaintzeko diru bilketa bat ere egin daiteke, saski bat jarritz...

**5. Ehorzketa:** senitartekoek egin duten aukeraren arabera, ehorzteko edo erraustera eramateko unea da.

Errautsak hilerriraino eramaten lagundu daiteke.

Bestalde, hilerrian ere beste agur txiki bat egin daiteke.



**6. Mokadua:** Giro lasai batean, mokadu bat jatea edo zerbait edatea senitartekoak, lagunak... elkartzeko aitzakia izan daiteke. Bertan elkartutakoek hildakoarekin partekatutako uneak gogoratzen dituzte.

**7. Akta jaso eta senitartekoei eman:** aldez aurretik adostuta, zeremonia ondorengo egunetan zeremonian bertan gertatutakoa eta bizitako akta batean jaso daiteke, senitarteko edo lagunekin batera. Akta hori ondoren senitartekoek jaso dezakete, baita kopia bat udalean gorde ere, aurrerantzean hildakoa gogoratu ahal izateko. Aktan zeremoniaren inguruko zenbait alderdi jaso daitezke: zeremoniaren antolaket, parte-hartzaileak, irakurritako edo esandako hitzak, jarritako musika...

**Egitura hori aldatu egin daiteke, eta ordena aldatu, edo beste zati batzuk gehitu, senideek hala eskatuz gero.**



© Agurtzeko zeremoniak  
Egilea: Leitzako Udala  
Urtea: 2021  
Lege gordailua: LG NA 1050-2021